

GEROA BAI, EH BILDU, PODEMOS eta IZQUIERDA-EZKERRAren arteko hartu-emanak

Hastapeneko akordioak

Hainbat alde biko bilera egiteaz gain, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerra taldeok lau alderdien arteko hiru bilera egin ditugu, egonkorra izanen den aldaketa zehazte eta osatze bidean urratsak emateko xedez.

Orain arte lortutako akordioak honakoak dira:

1. Aldaketaren Gobernuaren oinarrizko lehentasunak honakoak izanen dira:
 - Aldaketa integratzailea bultzatuko dugu, bizikidetzaren alde, guztion alde, lehen eta bigarren mailako herritarrik gabe, errebantxismorik gabe. Nafarroaren aniztasuna aberastasun eta aukera iturri da.
 - Eskubideak bermatuko dituen enplegua sortzea eta mantentzea. Alegia, kalitatezkoa izanen den enplegua: ordainsariei dagokionez, bai eta egonkortasunari, ziurtasunari, garapen profesionalari eta gainontzeko lan-baldintzei dagokienez ere.
 - Herritarron eta lurraldearen kohesioa, herritarron erreskatea. Nafarroan bizi diren herritar guztiak euren duintasuna bermatuko duten baldintzetan bizitzeko eskubidea dute. Oinarrizko zerbitzu publikoen defentsa (hezkuntza, osasungintza eta ongizate soziala), eta prestazio horiek zabaltzea eta hobetzea izanen dira eskubide horren bermea. Zehazki, ezinbestekoa da desberdintasun sozialen, bazterkeriaren eta pobreziaren aurkako borrokan eragitea. Horretarako, pertsona horiek egoera horretatik ateratzea eragozten duten mekanismoak gainditzea izanen da gako nagusia. Era berean, ezinbestekoa izanen da oinarrizko zerbitzu publikoetan gauzatutako murrizketak iraultzeko bidean aurrera egitea. Ildo honetan, eta arloz arlo, zerbitzu horien kudeaketan gauzatutako pribatizazioak ere aztertu eta dagokionean, iraultzeko bidea egin behar da.
 - Erregenerazio etikoa, gardentasuna, parte hartzea eta edozelako jokaera ustelaren aurkako borroka. Inklusio, garden, austero eta eraginkorren alde egiten dugu, herritarron zerbitzura egonen direnak.

Bertan, gizarte zibilak gero eta indar handiagoa izan behar du erabakiak hartzerakoan. Ezinbestekoa da Nafarroako kontu orokorren egoeraren berri zehatza eta errealia izatea. Halaber, zorpetze maila zehatz-mehatz ezagutzea, kontratupeko konpromisoak zein diren, eta etorkizunera begira hartutako gainontzeko konpromisoak. Honen guztiaren berri herritarroi ematea ere ezinbestekoa da, gardentasun eta pedagogia osoz.

Proposatzen dugun auditoria arko ekonomiko-finantzierotik haratago doa. Herritarron parte hartzea izanen duen auditoria integrala defendatzen dugu, jendartearen eskubide ekonomiko, sozial eta ingurugiroaren arloko eskubideetan izandako eragina argituko duena. Horretarako, prozesua eragile sozial eta profesionaleri zabaldu behar zaie.

- Proiektu estrategikoak: azkeneko urteotan gauzatutakoak aztertzeo prozesua abian jarri behar da, berrikusi eta kasuan kasu, gauzatutakoak berbideratzeko. Era berean, etorkizunera begirako ikuspegian, errentagarritasun ekonomiko, onura sozial eta ingurumen eraginaren gaineko irizpideak gailenduko dira.
- Erabateko konpromisoa Bakea, Memoria eta Giza Eskubideekin. Lege hauek erabat betetzea: Terrorismoaren Biktimak laguntzeko Apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea, Eskuin muturreko Taldeek edo Funtzionario Publikoek eragindako motibazio politikoko biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako Apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legea, eta 1936ko kolpe militarren harira hildako eta errepresioaren biktima izandako nafar herritarren Errekonozimendu eta Erreparazio moralerako Azaroaren 26ko 3/2013 Foru Legea.

2. Ahalik eta ahalegin handienaz lanean jarraitzeko konpromisoa hartzea, akordio programatiko bat lortzeko eta Aldaketaren Gobernu osatzeko xedez. Horretarako, honako oinarri metodologikoak erabiliko ditugu:

- Arloka batzordeak sortzea, honelako edukiarekin:
- Zerbitzu publikoak eta Herritarron Erreskatea: a) Etxebizitza, Lan Intserzioa eta Politika Sozialak; b) Osasungintza, Gazteria eta Berdintasuna; c) Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika.
- Ekonomia, Enplegua eta Fiskalitatea, Industria, Komertzioa, Turismoa eta Lan Harremanak.

- Autogobernua, Demokrazia, Gardentasuna, Herritarron Parte Hartzea.
- Toki Administrazioa, Azpiegiturak, Ingurumena, Landa Garapena eta Lurraldearen Antolaketa.
- Aniztasuna, Bizikidetzak, Bakea eta Biktimak.
- Funtzio Publikoa, Justizia eta Barne-Saila.
- Talde bakoitzak bi kideren ordezkari izan behar du arloko batzorde bakoitzean.
- Arloko batzorde bakoitzean ebatziko ondorioak Negoziazio Batzorde Orokorrek berretsi behar dituzte.

3. Parlamentuko Mahaiaren osaketari dagokionez, bozak batu eginen dira eta, honela, Lehendakariak PODEMOS-i, Lehendakariak-Ordea GEROA BAI-ri eta Idazkarikariak Lehena EH BILDU-NAFARROA-ri egokituko zaizkie.

Iruñean, 2015eko ekainaren 16an.

Geroa Bai

EH Bildu

Podemos

I-E